

TXOSNAK EGO-GAINEN

Jaixak Herrixak Herrixandako! Batzordetik, ekainaren 9an Udaleko ordezkariekin bilera izan eta gero, ondorengo hausnarketak Eibarko herritarrei helarazi nahi dizkiegu.

Udalaren jarrera aipatu behar da ooren gainetik. Izan ere, oso era aldrebasean argitaratu du txosnen eskaerak tramitatzeke informazioa. Alde batetik, gure kabuz lortu genuen maiatzaren 28an balizko araudi berria, zeina azkenean ez den aurten funtzionamenduan jarriko eta bestetik, txosnen eskaera egiteko epea ez da garaiz ohartarazi.

Halaber, txosnagunea lekuz aldatzeko erabakia hartu du eta Justizia Jauregiaren aurreko parkean kokatu nahi ditu.

Egoera honen aurrean, gure desadostasuna azaldu eta honako adierazpenak egin nahi ditugu: Ondorengo arrazoi sorta dela eta, txosnak Ego-Gainen mantentzearen aldeko apustu irmoa egiten dugu:

-Urte asko dira Ego-Gainen daudela txosnak. Herritarrak badakite han daudela bertara joan nahi izango balute. Era berean, urte hauek guztietan zehar, ingurukoekiko elkarbizitza arauak errespetatu dira.

-Eragile guztientzako lekua dago. Justizia Jauregiaren aurrean, berriz, ez dago leku fisikorik eragile guztientzako ez txosnaguneko egitaraua aurrera ateratzeko.

-Segurtasun arauak betetzen ditu, hots, pertsona kopuru handiagoa sartzen da, gune irekia da, erorketa arriskurik ez dago eta inguruan ez dago probokaziorik edo liskarrik sor dezakeen gunerik.

-Gune horrek txosnen egitaraua bete ahal izateko baldintzak betetzen ditu, ez baitu oztopatzen gainontzeko ekitaldiak aurrera ateratzea. Ez die trabarik egiten kontzertu, danborrada barraka edo su-artifizialei esaterako.

-Inguruko komertzioei txosnek ez die baldintzatzen.

-Udalaren aldetik ez da taxuzko arrazoirik jaso leku aldaketari buruz. Gainera, aurreko urteetan ezarritako baldintzak banan bana bete ditugu.

Ondorioz, egunotan hurrengo ekimenak burutuko ditugu:

-Sinadura bilketa: Esku-orriak banatuko dira herrian zehar eta sinatzeko aukera izango da Eibarko hainbat tabernatan.

-Prentsaurrekoa: Ekainaren 12an, larunbata, Untzagako prentsaurreko masibora joateko deialdia egiten da, eguerdiko 13'00an. Aurreko urteetako Jaixak Herrixak Herrixandako kamisetekin joateko eskaera egiten da.

Sortu daitezkeen mobilizazioei, adi egoteko ere eskatzen da.

Gora jai, herrikoi, euskaldun eta partehartzaileak!

